

FUNTSEZKO JARDUERAK

Dakigun bezala, funtsezko jarduerak beste enpresen esku utzi ezin daitezkeen ekintza edo jarduerak dira, enpresaren negozio-eredua ahalik eta hoberen funtziona dezan; hau da, funtsezko jarduerak gure enpresaren muina osatzen dute. Gure kasuan, kontuan hartuko genituzkeen funtsezko jarduerak hurrengoak izango lirateke:

Produktuaren ekoizpena. Izan ere, funtsezko baliabidetan aipatutako externalizazioaren bidez, beste enpresek egindako eta guri bidalitako produktuetatik abiatu arren, guk amaituko genituzke produktu hauek; hau da, produktu bukatuak salduko genituzke. Ekintza hau egiteaz gu bakarrik arduratu gaituzke, noski.

Beste funtsezko jarduera bat hornitzaileak zuzentzea izango litzateke, edo, beste era batera esanda, hornitzaileek guri eman behar dizkiguten produktuen baldintzak ahalik eta hoberenak izateaz arduratuko ginateke; horretarako, hornitzaileek erabiltzen dituzten prozedurei kontrol sakonak egingo genieke, produktuen kalitateaz ziurtatzeko.

<https://docs.google.com/document/d/1GiiCf6EaCTYSS6FI5o07-1g77hP50cDZAbPzxhBf0kc/edit> 1/1